


bestelako argiak



20 ABE.
6 URT.


Abenduaren 20tik aitzina, ‘Bestelako argiak’ piztuko dira hirian, neguaren etorrera ospatzeko. Zatoz horiek piztera Ziadadelara eta hiriko beste txoko batzuetara! Bideoarte-erakustaldiak, argi-jolasak, eta beste instalazio artistikoak, begiratu, sortu, jolastu eta gozatzeko.

BESTELAKO ARGIAK.
IV. BIDEOARTE
ERAKUSTALDIA 2019

Abenduak 20 – urtarrilak 1 18:30 – 21:30

KOMISARIOTZA ARTISTIKOA:

Jone Aranzabal Itoiz, Marc Barceló, Alessandra Boulos, Irati Crespo, Silvia Cruz, Noemi Cuetos, Anna de Guia-Eriksson, Daniela Delgado Viteri, Sofía García Broca, Diego Ginartes, Marcela Hinojosa, Mariana Sánchez Bueno, Hella Spinelli, Valentín Vía, Astrid Villanueva Zaldo. (Elias Querejeta Zine Eskola 2019-2020).



GUADALUPEKO BASTIOIA

Nunca é noite no mapa (2016) 6’
Ernesto de Carvalho, Brasil

Google Street View aplikazioaren bitartez, mapan agertzen diren irudi eta Brasil estatuko eskualde periferikoetako ekintzen arteko analogia geopolitiko indartsua erakusten du lan honek.

Retropolis (1999) 5’
Semiconductor, Erresuma Batua

Gure habitat-a den hiria, bizirauteko euren artean gaintzen saiatzen diren mugagabeko proposamenek eraiki eta deseraikitzen dute. Kaos-a hirigintzaren oinarri existentzial gisa ulertzera heltzen gara bidai sutzaile honetan.

Sopro (2000) 6’
Cao Guimarães, Rivane Neuenschwander, Brasil

«Homo bulla» metaforari aurre egiten dion kontenplaziozko lan existentzialista. Gizona burbuila bat da bere ezerezkari eta ahultasunagatik; honetan, burbuila apurtu beharrean monumentalki eseki egiten da dardarti.

Impresiones en la alta atmósfera (1989) 6’
José Antonio Sistiaga

70mm-ko pelikula baten gainean, José Antonio Sistiaga artista euskaldunak, etengabeko erritmo bariazioak margotu zituen forma abstraktu eta textura koloretsuekin. Zinemak duen berariazkotasun poetikoari erantzunez, kamera gabe ekoiztutako film honetan, argiaren eta irudi finkoen mugimenduaren arteko topaketa ematen da.

XABIER KALEA

Black and White Trypps Number Three
Ben Russell, Estatu Batuak (2007) 12’

Ipar Ameriketako zinemagileak psikodeliaren ikuspuntutik irudikatzen ditu ikusleak, Rhode Island-en ospatutako Lightning Bolten kontzertuan. Titian eta Caravaggioren pinturretara igortzen gaitu trantsiziozko erritu honek.

PELLEJERÍAS ZOKOA

Wasteland No. 1: Ardent, Verdant (2017) 5’
Jodie Mack, Estatu Batuak

Jodie Mack «antianimatzaile» ingelesak, materiala zein ukiezina den hondakina oda bihurtzen du, naturaren, zientziaren eta teknologiaren bateratze eta ondorengo talkaren bitartez.

Estructura suspendida (2018) 2’
Karin Idelson, Argentina

Dantzari bat kode arkitektoniko zurrunen espazioetatik zehar mugitzen da. Bien arteko talkak dimentsio eta perspektiba anitzez osatutako efektu optiko iradokitzailea eragiten du.

SEMINARIO PASABIDEA

Untitled (2019) 4’
Rajee Samarasinghe, Sri Lanka, Txina, Estatu Batuak

Lehen plano batetik abiatuta, emakume baten begiradak eragiten duen limurtzea aztertzen du Samarasinghek. Kamera geldo batek bost keinu erregistratzen ditu, mugimenduan dagoen irudia gauzatu nahian.

GAYARRE ANTZOKIA

Yawn (1998) 2’
Vanessa Renwick, Estatu Batuak

Bi minutuko frogia. Fondo laranja baten aurrean, hainbat pertsonak zuzenean begiratzen diote kamerari. Beste gorputz batzuek gu manipulatzeko aukerak gainditzen gaitu.

Dog Duet (1975-1976) 3’
William Wegman, Estatu Batuak

Espazio ilun batean, Hooka eta Man Ray txakurrek koadroz kanpo dagoen objektu bat jarraitzen dute begiradarekin, txundituta bezala. Txakurren mugimenduek koreografia tirabiratsua sortzen dute, haien jauziaren zain geratzen garen bitartean.

FRANTZIAKO PORTALEA

Mear en espacios públicos o privados, 167 Greenpoint Ave. Patio, bajo lluvia (2004) 2’
Itziar Okariz, Espainia

Orokorrean kalean pisa egitea debekatuta dago. Baina, zergatik dago debekuntza hau sexu, adin edo maila sozialagatik zehaztuta? Akaso, pisa egiteko gorputz jarrerak marginazio ala pribilegiozko kategoriak mugatzen ditu?


KONDESTABLEAREN JAUREGIA

Vera Cruz (2000) 44’ Rosângela Rennó, Brasil

Vera Cruzek 1500. urtean Brasilera iritsi ziren portugaldarren historia kontatzen du. Gertaeren erregistroa dokumentatzeko ezintasunaren aurrean, formaltasunaren ekonomia bitartez konkistatzaileen arteko fikziozko elkarriketa batean bihurtzen ditu kontakizun historikoak.

ZIUADELA

Ceniza verde (2019) 11’ Pablo Mazzolo, Argentina
Colchiquí mendiaren erretratu fantasmagorikoa, Córdoba mendilerroan zehar, Argentinan. Bertan mila urtez bizi ondoren, Hênia-Kâmiare komunitateak kolonizazioak suposatu zuen indarkeriaren aurrean buru-hilketa kolektiboa burutzea aukeratu zuten.



BESTELAKO ARGIAK ZIUADELAN

Ziadadelako lorategiak. Abenduak 20 – urtarrilak 6

KÖPPÖ

Tuneletan koloretako argiek jarraitzen digute, eta hodeiak ukituak izatera gonbidatzen gaituzte. Bideen argiari jarraitzeak TÖKKÖraino eramango gaitu. Negua iritsi da Ziadadelara!

Fermin Izkoren instalazioak.

TÖKKÖ

18:00 – 21:00

“Tökkö” ikus-entzunezko instalazio interaktiboa da. Elur-maluta baten forma duen egitura geometriko erraldoi batean, parte-hartzaileek zuzenean soinu-konposizio musikala egiten dute, urrats bakoitzaz kolorez aldatzen diren pasabide zirkularretan barna dabilaz.

“Tökkö” finlandierak elurraren egoera ezberdinak definitzeko dituen 40tik gora hitzetako bat da.

Ikus-entzunezko argi eta soinu instalazioa, conCienciArtek garatua.

POEMA MIKEL BELASCOAIN

Mikel Belascoainek Ziadadelan jarriko du ikusgai POEMA lana. Kolore eta olerkiz beteriko bost pieza dira, eta horietako bakoitzak muturrera eramandako emozio bat irudikatuko du. Katarsia, Zirrara, Nahasmena, Nahia, Irrika eta Loreak besterik ez mundu garaikidearen adierazpen gisa aurkeztzen dira; izan ere, mundu hori prozesu katarisiko eta zalantzaizkoan dago murgildurik gaur egun, artistaren aburuz.

Piezak sortzeko, Mikel Belascoain Zamorako Ideas TX Ingenieria enpresarekin batera aritu da altzairu eta beirazko bastidore fotovoltaiako bat diseinatzen, horrek eutsiko baitie margolanei, kanpoaldean. Pieza piktoriko guztiak olio-pinturan eginak dira, eta Mikel Belascoainek idatzitako poema banak laguntzen die.